



bai

ziurtagiridunen aldizkaria

KOIKILI LERTXUNDI

“Euskarak eta Bai Euskarari
Ziurtagiriak gure enpresa
zabaltzeko aukera
eman digute”

ziurtagiriaren elkartea



baieuskarari.org

1. alea
2009ko abenduaren 14a



Bai Euskarari Ziurtagiria

balioa eta berrikuntza · valor e innovación

1.600 entitate baino gehiago ziur daude



ZADORRA - ETXEA



ERANDIO
ARLAN



SOKOA
HENDAIA



MENDIA OPTIKA



NEKATUR



ELKAR



IURRETA
IURRETA INSTITUTUA



ziurtagiriaren **elkartea**

902 430026

baieuskarari.org



Ezagutzen al duzu Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu nahi duen entitaterik?
¿Conoce alguna entidad que desee obtener el Certificado Bai Euskarari?

info@baieuskarari.org ● 902 430026

Aldizkari honen laguntzaile izan nahi duzu? Edota iragarkia jarri nahi duzu?
¿Quiere ser patrocinador de esta publicación o insertar publicidad en ella?

komunikazioa@baieuskarari.org ● 619909882



Rober Gutiérrez
Zuzendaria

Guztiona, guztiontzako

Eskuartean duzun haxe da BAI Ziurtagiridunen Aldizkariaren lehen alea. Aldizkari honetan Bai Euskarari Ziurtagiriaren eta euskararen inguruko berriak jasoko ditugu, baina edozeren gainera zuek, Ziurtagiria duzuen entitateok izango zarete protagonista.

Bai Euskarari Ziurtagiria era guztietako 1.524 entitatek daukate momentu honetan, eta txiki zein handi, berri zein zahar, horiei guztiei emango zaie hitza. Horrexegatik diogu, guztion izango dela BAI aldizkaria, baina era berean guztiontzako ere bada, ziurtagiria duten beste komertzio, enpresa nahiz eraguztietako organizazioen berri izango baitugu aldizkari honen bidez.

Besterik gabe beraz, zuen entitatearen gaineko berriren bat baldin baduzue, edota euskara eta lan munduarekin zerikusia duen informazioen bat eman nahi baduzue kontaktatu gurekin 902 430026 telefono bidez edota komunikazioa@baieuskarari.org posta elektroniko bidez.

Zuen partehartzea benetan eskertuko dugu, aldizkari hau guztion eta guztiontzat baita.

Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkarte
Martin Ugalde Kultur Parkea
20140 Andoain (Gipuzkoa)
tel. 943 59 21 48
www.baieuskarari.org

Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkarte
eta Kultur Atelier

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Maribel San José (Kiroljokoa)

Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

Argazkiak:

Lander Garro: azaleko argazkia.
Kultur Atelier

Inprimatzailea:

Gráficas Juaristi

Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkarte



MUNDUKO 1.100 DENDATAN BAINO GEHIAGOTAN SALTZEN DA SKUNKFUNK

Skunkfunk markako arropa eta osagarriak "Made in Gernika" direla esan daiteke. Izan ere, Skunkfunk Urdaibaiko baserri batean sortu zen 1996 inguruan, eta XXI. mende hasieratik egoitza nagusia Gernikan dauka.

Skunkfunk-en sortzailea berriz, Mikel Feijoo Elzo izan zen, Historia Garaikidean lizentziatua eta diseinuan autodidakta. 90. hamarraldiaren erdialdean denda bat ireki zuen Gernikan lagun batekin, baina berehala bere zatia saldu egin zuen eta 20.000 euro poltsikoan zituela benetako erronkara egin zuen jauzi. Kamiseten diseinu bat egin zuen eta jaialdi, festa pribatu eta moda-ekitaldietan aurkeztu zuen. Feijoooren lehen diseinu haren harrera izugarri ona izan zen. Halaxe sortu zen Skunkfunk.

Gaur egun munduko 25 herrialde ingurutan eta 1.100 dendatan baino gehiagotan saltzen da. Produktu global bilakatu bada ere, Skunkfunk-ek hasierako nortasuna izaten jarraitzen du.

Jarduna
administrazio zerbitzuak

**Euskara denon kontua da,
kontuak ere euskaraz**



Enpresa bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzu profesionala eskaintzen dizugu:

Martin Ugalde Kultur Parkea ANDOAIN
Tel.: 943-30 40 30 • administrazioa@jarduna.net

www.jarduna.net



artez

euskara zerbitzua

Gure konpromisoa

euskara hobekuntza *kalitatea*

berrikuntza bikaintasuna berdintasuna

ingurumena *ekologia* pertsonak

kultura jendarte **hizkuntza**

lan-taldea lana *garapena*





KOIKILI LERTXUNDI

ITZARRIren koordinatzaile nagusia eta Athletic Club-eko jokalaria

Orain dela bi urte eskuratu zuen ITZARRIk Bai Euskarari Ziurtagiria. Enpresak sorreratik bertatik argi zuen euskara lehenetsiko zuela lan hizkuntza hautatzerako garaian. Zentzu horretan enpresaren filosofia bat zetorren Bai Euskarari Ziurtagiriaren filosofiarekin. Baina, Ziurtagiria eskuratzeko erabakia hartzerakoan beste arrazoi bat nagusitu zen: merkatua zabaltzeko garaian Ziurtagiriak enpresari ematen zion laguntza, hain zuzen ere. Koikili Lertxundi, ITZARRIren koordinatzaile nagusia eta Athletic Club-eko jokalaria esanetan, Ziurtagiriak enpresari aukera eman dio euskara lantzen duten ekimen ezberdinetan laguntzaile bezala aurkezteko, hau da, irudi hobea emateko.

KOIKILIA

“Uste dugu era honetako ziurtagiriek gure enpresa proiektua indartzen dutela”

Zein da Itzarriren filosofia?

Gure langile guztiak euskaldunak direla kontuan izanda, Itzarriren filosofia eta euskara oso estu daude lotuta. Guk egunero erabiltzen dugu euskara gure artean. Gure enpresaren filosofia eta euskara eskutik doaz.

Itzarrik zer lotura du euskararekin?

Itzarriren lotura euskararekin oso estua izan da enpresa honen sorreratik bertatik. Aholkularitza enpresa bat garenez egingdako lan guztiak euskaraz eta erdaraz aurkeztu izan ditugu hasiera-hasieratik, euskararen presentzia indartuz gure bezeroen eta gure arteko komunikazioan, nahiz eta askotan bezero hauek euskararekin harreman txikia izan. Era honetan, Itzarri eta euskara maleta berean doaz, euskal nortasunaren ikurra erakutsiz.

Zergatik hartu du Itzarrik euskararekiko konpromisoa?

Gure ustez gizarte mailan euskararen presentzia indartzea guztiz beharrezkoa da. Izan ere, esparru askotan ezar daitekeen komunikazio era dugu euskarazkoa. Eta gainera gure kasuan esan beharra dago, orain dela urte batetik hona, euskara planak enpresa eta esparru komertzial askotan zein dendetan ezartzen ari garela.

Eta Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko erabakia?

Gure elkarteak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko aukera berrestea aspaldi hartutako erabakia izan zen. Era horretan, gure enpresaren irudia euskara lantzen duten ekimen ezberdinetan laguntzaile bezala aurkezteko aukera bermatuko genuelako hartu genuen erabakia. Gainera, arrazoi askoren artean, era honetako ziurtagiri eta laguntzek gure proiektua indartzen dutelako ustea betidanik izan dugu. Ziurtagiri hau eskuratzeko prozesua nahiko erraza izan zen gure kasuan: Bai Euskarari Ziurtagiria gestionatzen duen elkartearekin harremanetan jarri ginen eta handik denbora gutxira dena eginda zegoen. Prozesu horren azkartasuna eta zerbitzuaren maila goraipatu beharrean gaude.

Ziurtagiria lortu ondorengo prozesua nolakoa izan da?

Bai Euskarari Ziurtagiria lortu eta berehala gure produktu guztietan Bai Euskarari Ziurtagiria jarri eta erabiltzeko aukera izan dugu. Hori dela eta, euskararen inguruan sortutako hainbat lan berri lortzeko aukera izan dugu hainbat enpresarekin eta gainera gure enpresaren irudia euskararen munduan erakusteko aukera errazten

dugu. Bai Euskarari Ziurtagiriak kalitate puntu bat eman dio gure enpresari eta zentzu horretan oso pozik gaude.

Prozesu horrek eta Ziurtagiriak zein aldaketa ekarri dizkio Itzarri?

Itzarri enpresak Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu duenetik abantaila komertzialak izan ditu batetik, eta euskararen inguruan gure konpromisoa indartzeko aukerak bestetik. Beraz, nahiz eta Ziurtagiri honek beste era bateko ziurtagiriekin harreman esturik ez izan, benetan oso tresna garrantzitsua dela uste dugu, eta hurrengo urteetan Euskal Herriko enpresa gehientseuei Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko eskatuko nieke. Ez dezatela zalan-tza izpirik izan.

Ziurtagiriak zein onura ekarri dizkio enpresari?

Ziurtagiri hau eskuratu genuenetik hona, adibidez, enpresa barneko komunikazio moldeetako batzuk aldatu ditugu. Izan ere, lehen gaztelaniaz aritzen ginen gure artean, baina gaur egun errealitate hori aldatu dugu, eta Bai Euskarari Ziurtagiria aldaketa honen bultzatzaile zuzena izan dela uste dugu.



GOZATU



Zure aisia gozatzeko tresnak dira liburuak, diskoak, DVDak...

Horiek guztiak eskura jartzen dizkizu **elkar txartelak**, deskontu, promozio berezi eta beste hainbat abantailekin.

gozatu aisia
gozatu txartela

elkar



MARIBEL SAN JOSÉ

(KIROLJOKOA)

“Además de mejorar la imagen de nuestra empresa, el Certificado Bai Euskarari nos permite transmitir nuestros valores con transparencia”



El objetivo de Kiroljokoa es ofrecer a la gente una nueva fórmula para participar en los eventos deportivos. De hecho, queremos que las apuestas sean una nueva forma de disfrutar aún más del deporte; apostando por nuestro equipo o nuestro deportista favorito, pudiendo demostrar los conocimientos que cada uno tiene de un deporte y, por supuesto, ganando premios.

Los deportes en los que nos centramos están vinculados a nuestras tradiciones y nosotros tenemos claro que debemos amarrarnos a todo cuanto nos es propio. Queremos fomentar el deporte rural, las regatas y la pelota y, claro, también el euskara; y es que no hay nada que sea más nuestro, más propio, que este idioma.

La mayoría de los trabajadores de Kiroljokoa somos euskaldunes; somos impulsores del euskara y estamos convencidos de que tenemos que comunicarnos en euskara siempre que sea posible, tanto en nuestras relaciones diarias como cuando trabajamos con las personas que conforman nuestro entorno. Por eso empleamos el euskara en todas las actividades de la empresa; porque utilizando el euskara con normalidad hacemos lo que está en nuestras manos para impulsar nuestra lengua.

Hay que comprometerse con los valores propios. Y muestra de ese compromiso es la decisión de obtener el Certificado Bai Euskarari. Con el Certificado hemos querido dar un paso más; pasar de las pa-

labras a las acciones.


Nuestro deseo es que el Certificado nos haga mejores, tanto en imagen como en el nivel de confianza de nuestros clientes, porque así la gente se dará cuenta de nuestro esfuerzo y de nuestro grado de compromiso con respecto al euskara.

En tiempos de crisis las empresas reducen costes. Repasan sus prioridades y rechazan los costes que menos valor les aporta. En estos tiempos, el Certificado aporta más que una buena imagen: es una clara opción para mostrar con transparencia los valores que caracterizan a la empresa. Por eso, tenemos la certeza de que este compromiso será más apreciado que nunca.



ELHUYAR
aholkularitza

**Parte-hartzea
eta talde-lana**
oinarri,
hobekuntza
helburu



... eta laster,
Bilbo Handian ere
Elhuyar Aholkularitza

Jarri gurekin harremanetan!

aholkularitza@elhuyar.com

www.elhuyaraholkularitza.net

Zertan egiten dugu lan?

- Euskara planak enpresa eta erakundeetan
- Esparruka landutako euskara planak udalerrietan: lan-mundua, merkataritza, gazteak...
- Hizkuntza normalizaziorako bestelako aholkularitza: laneko euskara moduluak, hizkuntza jarrerak lantzeko prozesuak, laguntza materialak...
- Herritarrek parte hartzeko prozesuak: hingintza, berdintasuna, gazteak...

OCCITANIA Y BRETAÑA APLICAN EL MODELO DE BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA PARA CREAR SUS PROPIOS CERTIFICADOS

Occitania y Bretaña han creado sus propios certificados lingüísticos basándose en el modelo del Certificado Bai Euskarari. Después de conocer el proyecto de Bai Euskarari y su funcionamiento, en 2004 pusieron en marcha la campaña “Ya d’ar Brezhoneg” en Bretaña, que viene a significar “Sí al bretón” (<http://www.ofis-bzh.org/index.php>). En Occitania aplicaron el mismo modelo en 2008, creando así el Certificado “Oc per l’Occitan” (http://www.occitan-oc.org/index.php?pagina=Lo_label¶m=Pas-Res&lenga=Occitan). En los Países Catalanes están trabajando en la misma dirección.

195 ENTITATE BERRIKESKURATU DUTE BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA KRISIGARIAIAN

Guztira 1.524 entitate dira dagoeneko Bai Euskarari Ziurtagiria dutenak, eta Ziurtagiriaren eraginpean 40.000 lagun baino gehiagoari diralanean. Azken urtean ere, krisigarai batean, 195 entitate berrik lortu dute Bai Euskarari Ziurtagiria. Rober Gutiérrez Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendariaren ustez, emaitza horiek lortu dira euskararen inbertitzeak onurak dakartzkiolako enpresari. Eta baieztapen hori argudiatzeko Bai Euskarari Ziurtagiriaren aurtengo publizitate kanpainan oinarritu da. Izan ere, aurtengo leloa “balioa eta berrikuntza” da, eta Gutiérrezzek uste du leloa ez dela kasualitatearen ondorio. Bere esanetan, enpresa batek zerbait sortzeko edo saltzeko erabiltzen duen hizkuntza, emaitzen ikuspegitik, ez da faktore neutroa: “Erosle batek hizkuntza bati atxikimendu berezia badio, nahiago du hizkuntza horretan saltzen dionari erostea. Beraz, harremanerako hizkuntza bezeroak berak aukeratzen ez duenean nabarmen jaisten da kalitatea”.

Kanpora begirako jardunean ez ezik, barrura begirakoan ere, Bai Euskarari Ziurtagiria duten zenbait entitatek ikusi dute,

langileen artean euskara txertatzen hasi direnean, langileek enpresarekiko duten atxikimendua handitu egin dela eta motibazioa suspertu. Eta motibazioak eragin zuzena du ekoizpenean: “Langile horietako askoren ama-hizkuntza euskara da, baina aurrez sarritan, euren bigarren hizkuntzara jo behar izaten zuten lanerako. Bai Euskarari Ziurtagiria lortu dutenetik ordea, zenbait neurri hartu dituzte eta euskaraz lan egitea naturala bihurtu da”.

BERRIKUNTZAREN AGENDA ZIURTAGIRIAREN ELKARTEAN

Gaur egungo errealitate aldakorrean lehiakor izateko, beharrezkoa da edozein entitaterentzat etengabe berritzen eta hobetzen aritzea. Baina organizazio bati berrikuntza ekarriko dioten proiektuak definitu aurretik, entitate horren negozio profilen eta berrikuntzarako gaitasunen inguruan gogoeta egin behar da. Horixe da, Eva Isasi gidari hartuta, Ziurtagiriaren Elkarteak egin duena.

Aurrera begira, Ziurtagiriaren Elkarteak Berrikuntzaren Agendaren bidez etorkizunerako finkatu dituen proiektuak garatzeari ekingo dio.

“KUADRILLAZ KUADRILLA EUSKARAZ” EKIMENA EGIN DA LEHEN ALDIZ

Arabako kuadrilla guztietara euskararen erabilera sozialaren aldeko mezua zabaltzeko “Kuadrillaz Kuadrilla euskaraz” ekimena jarri zuen martxan Ziurtagiriaren Elkarteak Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Azaroaren 18an eman zitzaion hasiera proiektuari Zuiako Kuadrillan egin zen ekitaldian. Ondoren, Aiarako, Aguraingo eta Arabar Errioxako saioak etorri ziren eta abenduaren 14an Gasteizko Artiumen eman zitzaion amaiera ekimenari.

Programa aurrera eramateko kuadrilletako euskara teknikariek eta zenbait enpresarekin elkarlanean aritu da Ziurtagiriaren Elkarteak. Izan ere, proiektuaren helburu nagusia Arabako arlo sozio-ekonomikoaren euskalduntzean eragitea zen. Azken batean, hizkuntzaren normalizazioan eragin nahi izan da modu erakargarri eta parte-hartzailean.

Saio guztiak antzerkiarekin hasi dira. Araban, bertako kuadrilletan eta haietako arlo sozio-ekonomikoan euskararen egoera zein den adierazteko umorez bustitako antzerki lana prestatu du ORTZAI taldeak. Antzerkiaren ondotik, kuadrilla bakoitzean euskararen egoera nolakoa den erakusten duten datuak aur-



keztu dituzte tokian tokiko euskara teknikariek. Ondoren, leku bakoitzeko pare bat enpresek euskara euren organizazioetan txertatzeak enpresarentzat nahiz gizarte osoarentzat zein onura dakartzan azaldu dute. Parte hartu duten enpresen artean daude, JEZ Sistemas Ferroviarios, Talleres Gometegui, Ulma Taldea, ASSA Ikastola, Laudioko Lanbide Heziketa Eskola, Decons, Cándido Besa upategia, etab. Saioak amaitzeko, Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendari Rober Gutiérrezrek euskararen egoera oro har nolakoa den eta arlo sozio-ekonomikoa euskalduntzeko Ziurtagiriaren Elkarteak Bai Euskarari Ziurtagiriaren bidez nolako lana egiten duen esplikatu du.

ILS COMMENCERONT À DIFFUSER LE LABEL BAI EUSKARARI À SAINT-JEAN-DE-LUZ

Kontseilua, le Conseil des Organismes Sociaux de l'euskara, l'Association du Label et la Commission Euskaraz bai avaient présenté le 21 octobre 2009 le processus Euskaraz bai de Saint Jean de Luz. Pour cette occasion, ils se sont entourés de nombreux soutiens tels que la Mairie et des acteurs sociaux de la cité.

La commission Euskaraz bai est née l'an dernier à Saint Jean de Luz, de la volonté de certains luziens de renverser la mauvaise situation de l'euskara dans la ville. Elle est composée de nombreuses associations et particuliers et désire que l'euskara retrouve sa place, comme l'a ex-

pliqué le représentant de la commission, Tristan Capelier. Ils vont dans un premier temps s'adresser aux commerces, restaurants, bars et cabinets médicaux du quartier des Halles, « le marché est le cœur de Saint Jean, beaucoup de gens y font leurs courses, y vivent, s'y promènent, et l'euskara a encore sa petite place. Nous voulons renforcer cette place avant de nous étendre aux autres quartiers ».

Cette expérience n'est pas la première en Iparralde. Après Sare, Espelette, Ascain, Saint Pée, Ciboure, Ustaritz et le Canton de Baigorri, elle arrive à Saint Jean de Luz et Mauléon.

Euskarak elkartzen gaitu.



Euskaraz lan egiten dugu. Euskaraz bideratzen ditugu gure harremanak, bai barnean, bai bezeroei begira. Eta euskararen aldeko apustuari eusten diogu, **euskara ardatz harturik Gipuzkoan** sustatzen ari diren **zenbait egitasmo estrategikotan** auzo-lankide jardunez buru-belarri, hala nola:

- **Mintzola Fundazioa**n, bertako patroia.
- **Soziolinguistika Kluster**rean, bazkide.
- **Gaindegia** behategiaren babesle.
- **Ahotsak.com** ahozko ondarearen bilketan laguntzaile.
- **Euskarazko zerbitzu**aren kalitatea sustatuz, Gipuzkoako Foru Aldundi eta hainbat udalekiko hitzarmen-kide.

Eta gizarte eta kulturazko beste hainbat ekimen ere babestuz.
Euskara gure nortasunaren *muin betierekoa* delako. Elkartzen gaituen hizkuntza.

zer nahi duzu bihar?

